

21. ONOMASTIKAREN IRADOKIZUNAK

Historiaurretik hasita 1500. urtera arteko arloa hartuta, batez ere Zestoako historiaren berri ematen saiatu gara orain arte. Horretarako, ahal izan dugun neurrian, i turrietarako od ugua lbisteb ila, e tab ertant arteka izen iradokitzaileak aurkitu ditugu. Badakigu hitzen jatorriari, hau da, etimologiari, eta esanahiari buruzko azalpenak ematea lan zaila eta labainkorra dela.

Dena den, hemen esandakoak hipotesi gisa hartzeak dira. Guk iritzi modura aditzera ematen ditugu, agian, topografiari ere erreparatuz, indusketa arkeologikoak egiteko norbaitentzat lagungarri izango direla koan. Jesus Elozegi ikerlariak ere bere garaian zerrenda interesgarria argitaratu zuen mapetako topografia eta toponimia kontuan hartuta¹.

21.1. HISTORIAURREA

Atal honetan Burdin Aroko herri harresituen toponimoetan azaldu ohi diren formak sartu ditugu.

21.1.1. “Muru” duten izenak

2.3.6. atalean adierazi dugunez, Gipuzkoan Aretxabaletan Murube eta Murugain leku-izenak daude, eta Murugainen, aztarnategi arkeologikoa dago, Burdin Aroko herri harresituari dagokiona. Beasaingo Murumendin dago mota horretako beste herri harresitu bat; baita Elgoibarko Morun ere, eta agian leku-izen horrek “muru”rekin izango du zerikusia.

Talde horretako leku-izentzat ditugu Arabako Kontrasta eta Nafarroako Larraonaren arteko mugan dagon Murube toponimoa. Beasainen Oria ibaiaren Muru erreka, Muruazpi eta Murugoena baserriak ere kontuan hartzekoa dira. Halaber Astigarragako Muru eraikina eta Ormaiztegiko Murua etxea, etab.

Zestean, Errezilgo Txorondegia eta Zestoako Ezkurroa arteko mugan Morrua izeneko leku-izena dago. Baliteke honek ere herri harresituekin zerikusia izatea.

21.1.2. “Ilun” edo “Ilur” duten izenak

Euskarazko “ilun” adjektiboaren esanahia kontuan hartu arren, ez zaigu iruditzen alde batera uztekoa denik hitzaren beste esanahi bati ere garrantzia ematea. Bizkaian ezaguna da, adibidez, Aulesti eta Nabarnizen arteko mugan Iluntzar mendiaren gainean dagoen Burdin Aroko herri harresitua. Interesgarriak

iruditzen zaizkigu, beraz, “Ilun” formako toponimoak, mendi gaina adierazten dutenean.

Zarauzko Inurritzara doan erreka, hain zuzen Ilun izeneko da. Zeraingo Aizpean dago izen bereko beste erreka bat.

Donostian, bestalde, Ilunbe erreka dago (eta lehen baserria ere bazegoen), Ilunbeko zezen-plazaren parean, eta “ilun” edo herri harresituen bat muinoaren gainean (Ospitaleak dauden lekuan) egon zitekeela iradokitzen du.

Pasaia San Pedron dagoen Ilunbek Uli mendiaren gainaldea joarazten digu leku interesgarritzat, Alkizako Ilunbek Ernio mendia, Mutrikuko Ilunbe baserriak Mijoa auzoaren inguruko mendiren bat (Galdona, adibidez). Usurbilen Urdaia auzoan dagoen Illunbe baserria badirudi Mutrikuko Ilunbe etxean duela jatorriak².

1562. urteko agiri batean Joanes Ilunbe oriotarra azaltzen da³, eta, ondorioz, Mendizorrotz alderako mendi gaina interesgarria da. Orion, hain zuzen, Ilunbena etxea eta Ilunberena lursaila azaltzen dira.

Oñatiko Olabarrieta auzoan Iluntza izeneko parajea dago. Gipuzkoan bertan Ilunpe eta Ilunpeko iturria toponimoak daude Antzuolako Galartza auzoan, Elosuko Erdi Aroko gazteluaren azpian⁴.

Beste Ilunbe bat Bizkaia eta Arabako mugan, Gor-



21.1. irudia. Donostiako Ilunbeko zezen-plaza.

beiaiko gurutzetik mendebaldera, Zuiako partean dago, Usotegieta mendiaren magalean. Bizkaian bertan, Markina-Xemeinen, Ilunbe izeneko basoa dago. Mallabian ere bai, Ilunpe basoa eta erreka.

Nafarroan, bestalde, Ilundain herria dugu, Arangurengeko udalerrian.

“Ilun” formaren aldaeratzat har daitekeen “Ilur” forma duten toponimoak ere ez dira gutxi, eta horietako bat Ilundainen parekoa da: Zestoako Ilurdain edo Illurdan baserriak, alegia. Illurdangoikoa eta Illurdanbekoa. Hortik gertu “Illunpeko atasarea” leku-izena ere badugu. Horrek guztiak Aizarnako Ipintzako baserriaren ondoko Arrizkarra, Erlokoa edo inguruko muinoren batean Burdin Aroko herri harresitua egon daitekeela pentsarazten du.

“Ilur” formak Biarnoko “Iluro” herria ere (oraingo Olorue) gogorarazten du. Ilurdo pertsona-izena ere aspaldikoa da. 973. urtekoa da erreferentzia bat⁵. Semen Periz Ilurdozkoa pertsonaren erreferentzia, berriz, 1290. urtean bada⁶. Nafarroako Esteribar udalerriko Ilurdutz herrian zuen jatorria.

Gipuzkoan, Berastegin, Ilurtxabal leku-izena dago, Ipuliño mendiaren ondoan. Aian, berriz, Ilurdi etxearen berri ematen du Lope Isasti historialariak⁷. Gainera Asteasu eta Aiaren mugan Ilurdiburu mendia dago, Aiako Etxeta bailara eta Iruretaegia artean. Asteasun, berriz, Ilurdi erreka dago, Iturriotzen sortzen dena.

Talde honetan sartzekoak izan litezke, hala berean, “Ulun”, “Ulur” eta “Urun” formak ere.

21.1.3. “Irun” edo “Irur” duten izenak

“Irun” forma duten toponimoek, gure ustez, gotorleku edo harresiekin dute zerikusia. Irun hiria dugu Gipuzkoan. Gipuzkoan bertan, Burdin Aroko herri harresitu handiena Albiztur eta Tolosa arteko Intxurrekoa da, bi kilometroko harresiak dituelako. Ez da ahaztu behar, ordea, Intxurreren izen zaharra “Iruntzurre” dela.

Kontuan hartzekoa da Berastegin, Amalur eta Zapategi ondoan dagoen Irun leku-izena. Elgoibarren Irunagatziki, Irunagabe eta Irunagasoro toponimoak daude. Irunagaerrota toponimoaren 1452. urteko erreferentzia ere bada⁸.

Beste zenbait leku-izen ere aipa daiteke: Aiako Irunziaga eta Irunziagaerrota; Idiazabalgo Irunbarena, Irunbengoa eta Irungoena; Lizartzako Irunzubi auzoa; Altzoko Irunzubialdea; Gazteluko Irunzietxe-berri eta Irunzi edo Iruntxi auzoa; Oria ibaira Altzo aldean doan Iruntxi erreka, etab.

Arabian ere, Araian bada Irunbe herrixkaren 1455. urteko aipamena. 1464. urtekoa da Zalduondoko “Irunmendieta” leku-izenarena, eta “Iruraez” Ermandadea ere aipatzen da, Agurain aldekoa, 1506. urtean⁹.

Kontuan hartzekoa da Nafarroako Sakanako Irunieta (Irañeta) herria. “Yrunnieta” forma azaltzen da 1210. urteko agiri batean, ondoko “Yrurçun”ekin



21.2. irudia. Irungo Jun-kaleko Andre Mariaren parrokia.

batera¹⁰. Nafarroako Deierrikoa da 1295ko “Yrunie-la” leku-izenaren aipamena ere⁶. Honen antza du 1052. urteko eta Lizarra ondoko “Eruniola” toponimoak ere.

Nafarroako hiriburuaren izen bera azaltzen da, “Irunia” forma, hain zuzen, 945. urtean Naiara ondoko oraingo Uruñuela herria adierazteko⁵. Errioxan bertan dira, halaber, talde berekotzat har daitezkeen Cironia¹¹ edo Cirueña, Ciruñuela eta Uruñuela herriak ere. Hauekin batera aipatzekoak dira Segovia-ko Sepulveda ondoko Urueñas herria eta Valladolid-ko Urueña herri harresitua.

1499. urtean Valladoliden egindako agiri batean, berriz, Aramaioko Gartzia Uruña eta Pedro Uruña aipatzen dira¹².

Gure ustetan “Irun”en aldaera den “Iruur” formako leku-izenak ere ugari dira. Aralar inguruan 1104. urtean “Iurnieta” leku-izena dugu, hiribildu batena¹³.

Gipuzkoako Urnieta gogorarazten du, jakina.

Nafarroako “Irueta”ko gaztelua aipatzen da 1488an Zaragozan egindako agiri batean¹⁴. Gure iritzi- z Etxarri-Aranatz eta Altsasu artean iparraldeko mendikatean zegoen “Iruiritako” gaztelua adierazi nahi zuen¹⁵. “Yrurlegui” (hau da, Irulegi) ere, Iruñea aldean dagoen gaztelua, aipatzen da 1266. urteko agiri batean¹⁶. Aranguren udalerriko Lakidain aldean dago¹⁵.

Gipuzkoan ere kontuan hartzekoak dira Soraluze-ko Irure baserria, Topinburu mendiaren magalean dagoena, Errezilgo partean Bedaman dagoen Iruereso- ro baserria (lehen Iruesaroe) Itziarren Andutz barre- nean dagoen Irure baserria edo Zestoako Ibañarrieta- ko Irureaundi eta Iruretxiki baserriak. Kontuan hartu behar da Ibañarrietan sortzen dela Oikia aldera doan Gazteluko erreka. Ibañarrietako gainak, itsasora duen bista eta guzti, berez leku egokia dirudi Burdin Aroko herri harresitua egoteko.



21. 3. irudia. Ibañarrietako Iruretxiki.

“Iurre” toponimoa ere aipagarria da. Bizkaiko Iurre elizatea (oraingo Igorre) 1490. urteko agiri batean azaltzen da¹⁷. Durango ondoko Iurreta herria gogorarazten du. 1741ean “Iurre” formaz azaltzen da, halaber, Nafarroako Esteribarko oraingo Irure¹⁸.

21.1.4. Beste zenbait

“Zegondia” edo “Segontia” toponimoa da, Burdin Aroari dagokionez, gune interesgarrietakoa bat. Zestoakoh iribildua 1383. urtean ortue tab iu rteg eroago herriaren mugak zehaztu ziren. 1385-VII-18an herriko mugetako bat “Çegondia” izeneko lekua zen (ikus [XIV. m. 9] agiria). Zegondia (edo antzinako Segontia) gure ustez Errezilgo mugan Txorondegiko ondoan dago; izan ere, 1512-VIII-9ko agiri batek honako hau dio: ... *procuradores/ de Rexill e Çestona al sel de Gomiçolaça donde hallaron una austerreyça/ e señal paqueña e junto con ella, apegante a ella, pusieron otra/ piedra mas alta, porque mejor y mas conplidamente paresca, la/ qual esta al vertiente e yendo de Çegondia a Yndovirivilla a mano es/ quierda del camino, en dos brazadas encima del camino yendo al dicho Indovirivilla desde Çegondia*¹⁹.

Antzinaroko Segontia izen zelta ei da, erromatarren garaikoa baino lehenagokoa. Ptolomeok (K.o. II.

mendea) “Segontia Paramica” hiria barduliarrena zela dio, Menosca, Gebala eta abarrekin batera. Beste Segontia bat, Segontia Paramica-Cigüenza del Paramo deitutakoa, Burgosko Villarcayo ondoan dago, eta nekez izan daiteke barduliarra.

Segontia Sigüenza ondoan, Guadalajaran, ere bada. Segontia Lanka, berriz, Sorian dago, eta Estrabonek aipatzen du. Aranda de Duero ondoko Langa de Duero da. Zeltiberoa omen zen. (Lanka = ibai-oheta zelteraz). Erromatarren garaiko “Antoninoren ibilbidean”, gainera, beste Segontia bat Zaragozako Epilan dago.

Zestoako Zegondia Etumeta (lehen Itumeta) aldean dago, hau da, Joan Bautista Arakistain debarrak idatzitako “Etumetako Basajaunaren” kondairaren kokalekua da. Ondoan dira, gainera, Morrúa, Kanposantua eta Legarralde (legarra zepa izan daiteke) izeneko toponimoak. Txorondegiko, beraz, induskatzeko muino interesgarria da.

Zestean bertan beste muino interesgarri bat Lepasoroko gaina edo Lopesoroko gaina da. 1479-VIII-20ko agiri batek hor Gazteluaitzaga toponimoa kokatzen du, eta muinoaren oinean Iribarrena izeneko baserria du (ikus [XV. m. 46] agiria). Gaina zabala da, eta topogra-

21.4. irudia.
Errezilgo
Txorondegiko
gaina.



fiari begiratuta Burdin Aroko herri harresitua egoteko leku egokia dirudi. Bertatik Txorondegi begiz ikusten da, eta Ibañarrietako gaina ere bai. Muinoko hiri hipotetikoaren barrenean dagoela adieraz dezake. Ondo samarrean da Aranburu baserria ere, 300 bat metrora, eta haranaren burua eta hiriaren barrena elkarrengandik hain hurbil egoteak, harana behean eta hiria goian (Lopesoroko gainean) daudela pentsarazten du.

“Ilun” formarekin harremana izan dezakeelakoan, “Uli” duten toponimoak ere interesgarritzat jotzen ditugu. Donostiako Uli mendia alde batera utzita,

Errioxan 1048. urtean Fortunio Lopiz de “Ulli” azaltzen da⁵. Nafarroako Areso eta Gipuzkoako Oresa bitartean Ulizar mendia dago.

1280. urteko agiri batean Nafarroako Longida udaleko “Huli” herria azaltzen da²⁰. 1290. urtean, berriz, Gartzia Lopez Ulikoa eta Antso Trigo Ulikoa pertsona-izenak azaltzen dira²¹. Aragoiko Jaca hiriaren ondoko Guasa udalerrian, berriz, 1135. urteko agiri batean Ulli herria azaltzen da, oraingo Ulle izenekoa²². “Uri”, “Iri” eta “Ili” erroak ere “villa” esanahia dute eta talde berekotzat jo daitezke²³.

21.2. ERROMATARREN GARAIA

Zestoan badira, gure iritziz, oinarrian latina duten leku-izenak. Ez da harriztekoa, Zestoan bertan eta inguruko herrietan, erromatarren kulturako hainbat tresna eta inskripzio agertu denez gero. Hala ere, latinezko onomastikak ez du, nahiz eta, erromatarren arazoak diren, ezan nahi; izan ere, Elizaren hizkuntza orain arte latina izan baita. Dena den, guk atal honetan sartuko ditugu, baina, berriz diogu, betiere hipotesi moduan, norbaitentzat baliagarri izango delakoan.

21.2.1. “Ager” taldeko izenak

Agirre deituraren interpretazio bat, “agerikoa” edo bistakoa izatea da²³. Zestoan badira Agerre izeneko bi baserri: Arroagoian bata eta Lasako Alberdikoaren ondoan bestea. Lehen Agirre deitzen ziren baserri hauek, eta bi formen artean “Agerri” dago, nonbait. Dirudienez, latinezko “ager, agri” (arloa, lursaila) izenetik eratorriak dira.

Otxoa Perez “Izagerrikoa” (“Ochoa Perez de Yçaguerri”) azpeitiarraren aipamena dago 1363ko agiri batean. Agiri horretan aipatzen dira, halaber, Otxoa “Agerre” (Ochoa de Aguerre) eta Joan Santxez Agerrekoa (Juan Sanchez de “Aguerre”) azpeitiarrak²⁴. Aipatzekoak dira hemen, besteak beste, Azpeitiko Loiolako Agerre eta Lasturko Agerre baserriak.

Erdi Aroan Uharte-Arakilen “Agirri” forma azaltzen da 991. urtean (baita Garcia de “Agirri” eta Anga Lioma de “Agirri” ere); hala berean “Ageri” (edo “Agueri”) ere 1178. urtean²⁵.

Ez da bazter uztekoa, halaber, Urnietako jendeak Adarra mendia adierazteko erabiltzen duen “Agerre” izena.

21.2.2. “Gal” duten izenak

Mundu germanikoan, une batetik aurrera “Wal(l)” forma erabili zuten arrotzak adierazteko, hau da, gure esukarazko “erdal” hitzaren parekoa zen. Bestela esan, hizkuntza, ohitura eta abarrez haiek bezalakoa ez zen gizajendea adierazteko erabiltzen zuten. Hor-tik sortu ziren “Walonia”, “Wales” edo “Gales” izenak.

Erromatarren munduan “Gal” forma erabiltzen zuten arrotzak adierazteko. Horren ondorio dira “Galia” eta “Gallaecia” edo Galizia”, adibidez. Mundu helenikoan, bestalde, “Galatas” ziren egungo Turkiara etorritako zeltak.

Gero, Julio Zesarrek Galia konkistatu zuenean, lurralde hari zegozkion gauzak adierazteko “Galli-

cus” eta “Gallicanus” hitzak erabiltzen zituzten. Erro berekoa da Aragoiko oraingo Gallego ibaiaren izena. 992. urteko agiri faltsifikatu batean “Galleco” ibaia aipatzen da²². Burgosko Oña eta Terminon herrien artean, berriz, 1011. urteko agiri batean “Gallielo” aipatzen da, oraingo Peña del Gallo²⁶. “Galleco” izen bera dakar 1046. urteko Leireko beste agiri batek²⁷. 1134. urtean Pedro Galleco pertsona-izena ere azaltzen da²⁸.

Gipuzkoan bertan, erro bereko Galleku erreka dugu Azkoitiko Madariaga ondoan. Errezilgo partean, Bedaman, Galleku izeneko parajea dago, lehen saroi izandakoa. 1452. urteaz gero daude aipamenak. Gainera Galleku saroiaren jabe Errezil eta Zestoa ziren erdibana. Batzuetan agirietan Gallakue edo Gallame grafiak ere azaltzen dira².

Ildo bereko beste toponimo bat Gallain da, hau da, oraingo Gallari, Azpeitiko partean Zestoaren mugan Gallarixoren ondoan dagoena. 1474. urteaz gero

daude aipamenak agirietan, Gallai, Gallay, Gallain eta Gallayn formak erabiliz (ikus [XV. m. 38] agiria).

Bizkaiko Ispasterren Gallate auzoa dago, eta Lekeitioko 1518. urteko agiri batean Pedro Gallate eta Juan Gallate pertsonak aipatzen dira³⁰.

21.2.3. “Akoa” edo antzeko forma duten izenak

Zestoako Akoa izenak bertako bailara adierazten du. Izen hori lotu izan da latinez ura esan nahi duen “aqua, aquae”rekin. Egia esan, inguru samarrean ditu Amabiturrieta eta Bainuetxeko ur beroak.

Akoa formaren aipamen zaharrena 1374. urtekoa da, Segurako “Iohan de Acoa” pertsonari dagokiona²⁴. Zestoako agirietan “Iohan de Sant Iohan de Acoa” 1380. urtean agertzen da (ikus [XIV. m. 3] agiria). Hortik aurrera “Akoa” (“Acoa”) forma azaltzen da beti agirietan, eta ez “Akua” (“Aqua”).



21.5. irudia. Zestoako Gallaritxo (edo Gallegitxo) baserria.

Gaur egun “Akua” aldaerarekin Nafarroan daude “Akuandi” eta “Akutxiki” toponimoak (Deierrin, Otsoportillotik iparraldera, Urbasa aldean). Andoainen ere badira dokumentazioan azaltzen diren (baina kokalekua non duten ez dakigun) “Acoa” eta “Acua”³¹.

Akoaren antzekoa dugu “Aikoa” forma, nahiz eta elkarren artean esanahi aldetik harremanik duten seguru egon ez. Nafarroan 1196ko aipamena dago: “Eneco de Aicoa”²⁵. 1290. urteaz gero Nafarroako Urraulen “Aycoa” herria aipatzen da agirietan²⁰. Araban aurkitu dugun aipamena 1463. urtekoa da: “Juan de Aicoa”³². Agian Zestoako Akoa eta Nafarroako eta Arabakoa antzeko toponimoak lotzeko bidea Antzinaroko transhumantzia izango da.

Antzekoa dugu “Aiqua” forma ere. 1138/1157ko agiri batean azaltzen da deitura gisa: “P. de Aiqua”²². Kontuan hartzekoa da, halaber, Markina-Xemeineko “Akoda” baserria eta Ispasterko “Akoda” basoa.

21.2.4. “-ona” eta “-ain” amaierako izenak

Zestoako Udalerrian baditugu, gutxienez, historian zehar “-ona” amaieraz idatzita agertzen diren hiru toponimo garrantzitsu: “Çestona” (edo “Çeztona”), “Arrona” eta Baiona (Narruondon). Narruondoko Baionan errota zegoen, aurkitu dugun 1436ko lehen aipameneko agiriak dioenez (ikus [XV. m. 11] agiria).

Dena den, Narruondoko Baiona XII. mendean gaskoiak Gipuzkoara etorri ondoren sortutako toponimoa izan daitekeela pentsatzen dugu. Beraz, haiek ekarritako leku-izena izan daiteke. Arrona eta Zestona izenetan, aldiz, latinaren arrastoak ikusi izan ditu zenbaitek “ona” atzizkia dela eta³³.

Julio Caro Baroja ikerlariak “-ana” eta “-ona” atzizkiak dituzten zenbait leku-izeni persona-izenak egotzen dizkio. Adibidez, Aramaiona, Bedarona, Lejona, Lemona, Libarona eta Mallona izenen erroa argitzeko “Aramaeus”, “Vedius”, “Lemonius”, “Liba-



21.6. irudia. Zestoako bista.

rius” eta “Mallius” latinezko pertsona-izenak proposatzen ditu. Sestao leku-izenarentzat “Sestanu(m)” pertsona-izena hartzen du errotzat³⁴. Zestoaren errotzat “Sextus” eta Arroarentzat “Arrius” pertsona-izenak ere hartu izan dira³⁵. K.o. VII. mendeko Ravennako ezezagunak bere Hispaniako iparraldeko kostaldean zeuden hirien zerrendan aipatutako “Cistonia” ere ezin da alde batera utzi. 3.10.1. atalean luzeago mintzatu gara gai horretaz. Gero, 1348. urtean azaltzen da Zestoaren aipamena: “Martin Diaz de Çestona”, 5.3.9. atalean adierazi dugunez.

Nafarroako Arrona herriaren aipamena bada 1127. urteko Leireko agiri batean²⁷. Zestoa izenari Sestao-aren antza hartzen diogu. Biak ere lexema berekoak direla iradokitzen du Ciervide ikerlariak³⁶. Sestaoren eta Zestoaren pareko beste leku-izen bat, “Cestave”, 1087. urtean aipatzen da (Arabako Zigoitiko Zestafe auzoa)³⁷.

Dena den, Bizkaiko oraingo Sestao herria XV. mendean “Sesto” izendatzen zen. Ordukoak dira, adibidez, “Ynigo Saes del Sesto” (1497), “Pedro de Sesto” (1498), “Ynigo Vrtis de Sesto” (1502)³⁸, edo “Santa Maria de Sesto” (1432)³⁹.

“-ain” atzizkia duten beste izen askoren erroa ere latinezko pertsona-izena dela zioen Julio Caro Baroja ikerlariak. “Acotain” (“Aculeus” izenetik?), “Adoain” (Ado”tik), “Amalain” (“Emilianum”etik), “Baliarrain” (“Valerius”tik), etab. Zerrenda luzea erakusten du ikerlariak, adibide gehienak Nafarroako toponimoak izanik³⁴.

“-ain” atzizkidun izen berezien sorreraz euskararen oinarritutako bidea (deklinabideko posesiboan, hain zuzen) hobetsi zuen Manuel Lekuona ikerlariak⁴⁰. Besteak beste “-ain” eta “-in” atzizkia duten eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia eta Iparraldeko toponimoak zerrendaturik argitaratu ditu Milagros Esteban ikerlariak³³.

Guk, ondoren, orain arte agiritan aurkitu ditugun eta Zestoakoak nahiz inguruetoakoak diren beste zen-

bait aipatuko ditugu: Urtarayn [Urtain] (1483-II-15); Urriarayn? (castanal de) [Urriarain?] (1483-II-17); Muscandayn [Buskandegi] (1483-II-17); Yuayn Arrieta [Ibain Arrieta, Ibañarrieta] (1393-VI-4); San Lorente de Beayn [Beain, Bein] (1399); Gallain (caseria) [Gallari edo Gallegi] (1474-XI-4); Adiestayn (sel) [Ariztain] (1483-V-18); Anacharayn (puente) [Anatxarain] (1483-V-8); Ybayn arriaga [Ibainarriaga] (1529-VIII-6); Beayn (casa de) [Beain, Bein] (1543-II-12); Sastarrayn (casa de) [Sastarrain] (1543-II-12); Azcoain (cuesta de) [Azkoain, Beduan] (1571-V-8); Abelain (terminado de) (1599-III-26); Martín Perez de Vildayn [Bildain, Pildain] (1349-VIII-19); Martin de Catebain (doctor) [Katebain] (Azpeitiko Katain?) (1440?); Martin Ochoa de Bildain (1452-X-28); Juan Miguelez de Landerrain (escribano notario publico) (1452-X-28); Sauça de Çatarayn (casa) [Zatarain] (1543-II-12); Zebain (Cabalayn erreca) (casa e caseria) [Zebainerreka] (1559-I-5); Pedro de Ebildain (1514/1515); Maria Martinez de Ebildain (1514/1515); Juan Martinez de Ebildain (1514/1515).

Beste hauek guztiak Zestoako toponimoak dira, “-ain” amaiera dutenak, Luis Mari Mujikak egindako bilketa-lan erraldoitik ateratakoak⁴¹: Akain; Atristain (Aratristain); Bernain; Benasainburua; Esparrain; Gabarain; Ilurdain; Mandulain; Palankain; Sustrain; Txurrikain; Zokain; Zalarain [Zelarain].

21.2.5. “Albi” duten izenak

“Albi” erroa duten toponimoak latinezko “alba, albae” (zuria) hitzetik eratorrizkotzat jo izan dira. Lasturren eta Amezketan “Albizuri” leku-izena dago. Zestoa ere bai (1479) (ikus [XV. m. 46] agiria), eta badirudi hemen lehenbizi latinez adierazitako zuritasuna euskarazko “zuri”rekin errepikatu egiten dela, “ikus+mira”, “sal+menta” edo “Lope Otxoa” kasuetan bezala. Beste era batera esanda, latinezko “albi”ren ondoren euskaraz esanahi bera duen “zuri” ipintzen da.

“Albiztur” herriaren izenak baliteke dorre zuria esanahi izatea, baina “Albi” pertsona-izena izan daitekeela ere adierazi izan da²³.

21.2.6. Beste zenbait

- “Atristain” izeneko baserriak gure inguruan Zestoan eta Aizarnazabalen daude (Zestoakoa duela urte batzuk eraldatua). Etimologiaren aldetik “Ara Tristaini” edo “Tristanen aldea” onargarria ote? “Aratrishain” deitura azaltzen da XVI. mendean, Sebastian Aratrishain hargina, 1527. urtean, Zestoan egindako agiri batean⁴².

- Lastur ondoko “Arakistain” baserriaren izena da kontuan hartzeko beste toponimo bat. “Araqueriztayn” (1529) forma “ara + coeli”tik (Arakil bezala) eratorria izan daiteke, hau da, “zeruko aldea” izan daiteke esanahia. Zestoan, bestalde, Aiakelu lekuzena dugu, Etorra aldean, eta “kelu” amaierak latinezko “coelum” (zerua) gogorarazten du.

- Lastur aldean daude “Agiri” mendiak ere, baina forma zaharragoa “Agirano” (1482) da. Agirano izenak euskal fonetikaren legeei jarraitua “Agirao” eta oraingo “Agiri” formak (ez Agido) eman dituela esan daiteke. Honen parekotzat joko genuke “Sestano” izenetik lehen aipatutako “Sestao” eta “Sesto” formak eratorzea. Agirano-k, ordea, “Aguilanus” ote du jatorria?

- Kontuan hartzeko beste toponimo bat Errezilgo lurretan Etumeta aldean dagoen Komisolatza da (eta ez Komisiolatza). Latinezko “comes, -itis” edo kondea du, gure ustez lehen erroa, eta euskarazko “olatza” bigarrena. “Gomisolaça” (1478) forma azaltzen da agirietan. “Gomiztegi” leku-izenak ere erro bera du, kondea, alegia. “Erretolatzen” pareko elkarketa da “Komisolatza”. Batak “erregea” du lehen osagaitzat, eta besteak “kondea”.



21.7. irudia. Agiri mendiak.

- Arroan “Cutrulo” (1597) etxea aipatzen da agirietan, hau da, oraingo “Kutrulo” edo “Kutrulu”. Latinezko “torcularē” aditz-forma eta “torculum” (dolarea) izenaren antza hartzen diogu.

Aizarnako Bikendi baserria da kontuan hartzeko beste leku-izen bat. Joan de “Biquendy” (1541) izena agertzen da agirietan, eta latinezko “Vecentius, -i” edo Bizente dela dirudi.

- Zestoako Pagio baserriaren aldean, bestalde, “Dominen sorora”(Jausoro) azaltzen da 1479ko agiri batean.

- Pagio izena bera, Pagino forma zaharragotik dator. XV. mendean gero Pagino eta Paginolarre azaltzen dira agiri historikoetan. Etorra aldean ere “Paguino” leku-izena azaltzen da 1479ko agiri batean. Latinezko “Pagus, -i” erroa izan dezake, hau da,

“baserria” esanahia izan dezake, hots, “urbi” edo “civitas”en aurkakoa. Ondoren euskarazko “-no” txikigarria du. Kontuan hartu behar da erromatarren garaian “magister pagui”, hau da, “baserriko maizterra”, kargua ere bazela.

- Aiako Santiago erreka Mañarinzelai da ikusi beharreko beste toponimo bat. “Francisco de Mañarinçelay” (1517) pertsona aipatzen da, adibidez, agiri batean. Latinezko “magnalia, -ium” (handitasuna) gogorarazten du. Urte batzuk lehenago, ordea, “Joan Martines de Maynarinçely” eskribaua aipatzen da Zestoako 1516-IX-6ko agiri batean, hau da, latinezko “magnalia” + “coeli” ditu bere baitan⁴³. Delako “coeli” euskararen eraginez “çelay” bihurtzearen beste kasu bat Soriako “Medinaceli” leku-izenarena da; izan ere, Gipuzkoako Batzarren 1567ko aktetan “señor Duque de Medinaçelay” idatzi baitzuten⁴⁴.



21.8. irudia. Aiako Mañarinzelai.

- Azpeitiko Loiolako Agerre baserritik gertu Sistiaga leku-izena dugu. Bertako erreka ere izen horixe du. Oartzunen Sistiaga baserria dago, eta Gurutzeko bidean gertu, Andrearriaga. Hortxe aurkitu zen erromatarren garaiko hilarria, bere inskripzio eta guzti. Azpeitiko Sistiaga agirietan “Çistiaga”, “Çeys-tiaga”, “Çeztiaga”, “Çiyustiaga”, “Çeiztiaga”... formatan azaltzen da bertako erreka eta lurak adierazteko⁴⁵. Erroan latinezko “cinis, -eris” (errautsa edo gorpua) ote dagoen pentsa liteke. Errioxan bada “Cinasariam” (Cenicero) izeneko herria, dirudienetz errautsak adierazten dituen.

- Gipuzkoan erromatarren garaiko gune garrantzitsua izan zen “Menosca”. Barduliarren lurretan zegoen “Menosca oppida” izeneko, eta Zarautz edo Getaria inguruan zegoela esan ohi da, bertako indusketa arkeologikoetan azaldutakoan oinarrituta. Jatorri

berekoak izan daitezke XV. eta XVI. mendean azaltzen diren “Manosca” eta “Mañosca” formak. Bizkaian “Manosca”ko lurak aipatzen dira 1413ko Ziortzako agiri batean, eta geroztiko urteetan baita “Manosca” deitura gisa ere: “Martin Yvannes de Manosca”, “Estibalis de Manosca” eta “Martin de Manosca”⁴⁶. Markinan “Pero de Manosca” pertsona-izena agertzen da Ziortzako 1508ko beste agiri batean⁴⁷. “Mañozca” aldaera geroxeagokoa dela dirudi. Mexikoko hiriburuan Juan de “Mañozca” artzapezpikua azaltzen da 1643-X-17an, eta Mexiko bertako Tlaxcala-ko katedralean Juan de Santo Mathia y “Mañozca” apezpikua 1675-VIII-14an⁴⁸.

Kontuan hartzekoa da, bestalde, Arrolan (Nabarniz, Arratzu eta Mendata artean) K.a. III-I. mendeko herri harresitua industen ari direla, eta herria barduliarrena dela esaten dutela.

21.3. ERDI AROA

21.3.1. “Gaztelu” duten izenak

Lehenago aipatua dugu Zestoan, Aizarnako Lopesoroko gain aldea adierazteko 1479ko agiri batean azaltzen den “Gazteluaitzaga” leku-izena. Baita Ibañarrietatik Oikia aldera dagoen “Gazteluko erreka” ere.

Deba eta Azkoiti aldean, tarte txikian, ugari dira Gaztelu izeneko toponimoak. Lasturren, adibidez, Gaztelu mendia dago, bertan haitzuloak dituela, Urkulu mendiaren ondoan. Erdi Aroko gaztelu batzuk haitzaren barnea (haitzuloa) izaten ziren, eta ez mendi-gailurreko leku harresitua. Arabako Bastida Udaleko Buradon Gatzagan dago horrelako gaztelu bat.


Sesiarte mendiaren ondoan ere bada Gaztelu izeneko gailurra. Azkoitian Madariagan Gazteluaga baserriaz gain, Zorrozperen ondoan Gazteluaitz izeneko mendia dago.

Inguru horretan, 1380ko agiri batean Aitzuri mendian, Larraskanda ondoan harresia aipatzen da: “... *la fuente de Ayzuri y dende al cerco de Ayzuri y dende a la cerca de la peña de Ayzuri y dende a la piedra de Larrascainda...*”⁴⁹. “Cerca” izena gure ustez hor harresia adierazteko erabilia da.


Gipuzkoan ezagunak dira 1200. urtean Gaztelako Alfontso VIII.a erregearen mendera etorri ziren gazteluak. Horien eta horien ondoko toponimiaz gain Gaztelu izeneko leku-izenak ugari dira. Hona hemen gutxi batzuk: Gazteluerreka eta Gazteluaitz (Oñatin), Gaztelu (Idiazabalen, Azpeitiko Elosiagan, Aiako Urdanetan, Usurbilgo Aginagan, Zerainen, Eibarko Arraten, Gabiriko Orbeldegi auzoan, eta abarren), Gazteluberri (Otzaurten, Zegamako mugan, Berastegin), Gaztelutxo (Urnietako Goiburun), etab.

Gipuzkoan bertan oso ugari dira Gaztelu izeneko toponimoak, eta guk hemen adibide gutxi batzuk baino ez ditugu ipini.

21.9. irudia.
 Debako Lastur eta
 Azkoitiko
 Madariaga arteko
 Gaztelu leku-
 izenak eta
 Atxurigaña.



21.10. irudia. Azkoitiko
 Zorrozpeko Gazteluaitz.



21.3.2. “Dorre” duten izenak

Erdi Aroan Zestoan, orain arteko testuetan adierazi dugunez, dorretxe garrantzitsuak ziren, besteak beste, Iraetakoa, Lilikoa, Altzolaraskoa eta Lasaokoa. Laurak ere burdinola zuten ondoan eta Zestoako historian eragin handia izan zuten.

Gipuzkoan hainbat eta hainbat dorre ziren Erdi Aroan. Guk hemen “dorre” izeneko leku-izen gutxi batzuk izendatuko ditugu: Antxieta dorrea, Berrosueta dorrea eta Loiola dorrea (Azpeitian), Arkale dorrea, Audele dorrea, Urkabe dorrea eta Dorreonsoro (Oiartzunen), San Martin dorrea (Azkoitian), Arregi dorrea, Gallastegi dorrea, Lamiano dorrea, Mekolalde dorrea eta Moiuia dorrea (Bergaran), Isturitzaga dorrea eta Dorrontxolaaundi (Andoainen), Dorremendia (Altzagan), Dorreonsoro (Ataunen), Dorregi (Baliarrainen), etab.

21.3.3. Beste zenbait

Interesgarria da Mendikute toponimoaz bi hitz egitea. Euskarazko “mendi” eta latinezko “acutus” zatiez osaturikoa da. Leku-izenaren lehen atala latinezko “monte(m)”etik eratorria ere izan daiteke. Mendizorrotz dugu, beraz. Gipuzkoan Albizturkoa famatua da, Erdia Aroan gaztelua eduki zuena. Kontuan hartzekoa da Bizkaian Markina-Xemeingo Mendikute baserria.

Zestoako Lasao aldean mendiekin zerikusia duten bi toponimo Ezuria eta Eskurrieta dira. “Eçuria” berez “Aitz zuria” da, eta izen horixe duen baserria ere bada Aizarnazabalen (1589), Mirubia baserria baino gorago, nahiz eta orain “Etzubi” deitzen zaion.

Lasao aldeko “Eskurrieta” izenak berriz, “haitz” eta “gorri” ditu bere baitan, hau da, “Aizkorrieta” da gure iritziz.

Zestoan eta inguruetan badira, gure ustez, gaskoiekin zerikusia izan dezaketen toponimoak ere. Narruondon Baiona etxea dugu XV. mendeaz gero,

21.2.4. atalean aipatu dugunez. Ez da ahaztu behar Donostiako hiribildua sortu zenean, XII. mendearen amaiera aldera (1180-1190) Baionako gaskoia etorri zirela bertara bizitzera. Gaskoia dira bertako Enbeltran, Narrika, Polloe, Aiete, Miramon, Añorga eta beste zenbait leku-izen. Gipuzkoako kostaldera eta barrualdera ere zerbait zabaldu ziren harrezkero. Hondarribia, Villabona (izen gaskoia) eta Zumaia arteko lurretan hedatu zirela esango genuke.

“En-“ eta “Na-“ hasierako Enbil (Aizarnazabalgo baserria) eta Narruondo (Arroako auzoa) bertan ditugu. Ebildain deitura ere azaltzen da Getarian (Pedro Ebildain, Maria Martinez Ebildaingoa eta Joan Martinez Ebildaingoa) 1514. urteko agiri batean⁵⁰. Arroan, gainera, 1534. urteko agiri batean “Chomin Gascon” pertsona azaltzen da⁵¹. Ez dakigu, bestalde, Zumaian hiribildua egiteko erregeak emandako “Villa Grana” izenean gaskoia zerikusirik duen.

“Kamio” leku-izenak Gipuzkoan duen banaketa ikustea ere interesgarria da. Zestoan Bedaman baten Kamio izeneko baserria. Gipuzkoan Oiartzun, Hondarribia, Donostia, Zizurkil, Asteasu eta Aizarnazabalen dira ia Kamio denak.

“Agote” izenak Gipuzkoan duen banaketa ere adierazgarria da. Zestoan Arroako auzoa da Agote, baina horrez gain Agote baserriak Asteasun, Getaria-ko Askizun eta Aiako Elkanon dira, hau da, Hondarribia, Villabona eta Zumaia arteko lurretan daude. Agotak (edo “cagot”ak) Pirinio inguruko ibarretan bizi ziren eta gizarteak baztertu egiten zituen. Ilehoriak eta azal zurikoak ziren, baina jendearen ustetan jatorrizko bekatua zuten.

Hain zuzen 1200. urtea baino lehen Baionako elizbarrutiak Donostia aldean zituen mugen xehetasunak eman genituen 5.1.3. atalean. Izan ere, 1106. urteko beste agiri batean Paskual II.a aita santuak Baionako elizbarrutiak Donostian zituen mugak zehaztu zituen: “...terra que dicitur Ernania, et Sanctum Sebastianum de Pusico usque ad Sanctam Mariam de Arosth

et usque ad Sancta Trianam...”. “Kamio” eta “Agote” toponimoen banaketa Baionako elizbarrutiak garai hartan Gipuzkoan izan zituen lurretan dagoelakoan gaude.

Onomastikaren interpretazioa hizkuntza aldetik aztertzea nahiko arlo irristakorra izanagatik, informazio-iturrietako bat ere bada, eta ezin dugu alde batera utzi⁵².



21.11. irudia. Aiako Elkanoko Agoteaundi.

21.4. HOGEITA BATGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ ELOSEGI, J. *Topónimos del País Vasco-Navarra interesantes para los prospectores de su arqueología*, in Munibe, 1956, 8 (3-4). Donostia. (222-228. or.).

² ERENTXUN, J. Apellidos blasonados. Enciclopedia guipuzcoana. 5,6,7, aleak. Donostia, 1965. (153. or.).

³ XX. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Orioko eskribautza. Eskribaua: Pablo Iturriaga; 3/001798 paper sorta. (78a-80a folioak). (folioen a = aurkia edo “recto”).

⁴ PAVO, K. Antzuolako toponimia. Onomasticon Vasconiae, 25. Euskaltzaindia. Bilbo, 2005. (350. or.).

⁵ UBIETO ARTETA, A. Cartulario de Albelda. Textos Medievales, 1. Valentzia, 1960. (34, 40, 86, 169, 177, 194. or.).

⁶ ZABALTZAALDABE, M. I. Archivo General de Navarra (1274-1321). II. Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza, 75. Donostia, 1997. (172, 173, 222. or.).

⁷ ISASTI, LOPE. Compendio Historial de Guipúzcoa, 1625. V. alea, 1. zatia. Amigos del Libro Vasco argit. Bilbo, 1985. (97, 98. or.).

⁸ AIERBE IRIBAR, R. M. eta beste. Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco. Eusko Ikaskuntza, 94. Donostia, 1999. (21. or.).

⁹ POZUELO RODRIGUEZ, F. Documentación municipal de la cuadrilla de Salvatierra: municipios de Asparrena y Zaldondo (1332-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 109. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2001. (33, 34, 37, 39, 154, 360. or.).

¹⁰ JIMENO JURIO, J. M. eta JIMENO ARANGUREN, R. Archivo General de Navarra (1194-1234). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 89. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1998. (114. or.).

¹¹ UBIETO ARTETA, A. Documentos reales navarro-aragoneses hasta el año 1004. Textos Medievales, 72. Zaragoza, 1986. (110, 111. or.).

¹² BAZAN, I. eta MARTIN, M. A. Colección documental de la cuadrilla alavesa de Zuia. I. Archivo Municipal de Aramaio. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 93. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1999. (33, 39, 59. or.).

¹³ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona, s. IV-XII. I. alea. Iruñea, 1979. (310. or.).

¹⁴ XX. Archivo General de Simancas. Registro General del Sello. Volumen V (Enero 1487 - Diciembre 1488). Valladolid, 1958. 1488-I-31. Zaragoza. 326. folioa. (324. or.).

- ¹⁵ SAGREDO, I. Navarra. Castillos que defendieron el Reino. I. alea. Iruñea, 2006. (309, 389, 408. or.)
- ¹⁶ GARCIA ARANCON, R. Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Registro nº 1 (1259 y 1266). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 102. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2000. (109. or.)
- ¹⁷ VIÑUELAS, F. Archivo General de Simancas. Registro General del Sello. Volumen VII (Enero - Diciembre 1490). Valladolid, 1961. 1490-VII-5. Burgos. 206. folioa. (291. or.)
- ¹⁸ SALES TIRAPU, J. L. eta URSUA IRIGOIEN, I. Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Sección: procesos. XXVIII. alea. Iruñea, 2008. (93. or.)
- ¹⁹ XX. Zestoako Udal Artxiboa. Hacienda Municipal. Liburu-zk. 1. Negoziatua: Bienes Municipales, Espediente-zk.: 5. Sorta: Término municipal. (2. or.)
- ²⁰ ZABALO ZABALEGI, F. J. Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Registro nº 2 (1280). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 103. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2000. (85, 86, 92, 96. or.)
- ²¹ PESCADOR MEDRANO, A. eta SEGURA URRRA, F. Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Registro nº 3 y 4. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 104. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2002. (240, 241. or.)
- ²² UBIETO ARTETA, A. Cartulario de Santa Cruz de la Serós. Textos Medievales, 19. Valentzia, 1966. (10, 11, 33, 52. or.)
- ²³ MITXELENA, K. Apellidos Vascos. Txertoa argit. Donostia, 1973. (37, 43, 106, 159. or.)
- ²⁴ MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (57, 315, 319, 321. or.)
- ²⁵ LIBANO ZUMALAKARREGI, A. Toponimia medieval del País Vasco. Onomasticon Vasconiae, 14. Euskaltzaindia. Bilbo, 1995. (69, 73, 74, 86. or.)
- ²⁶ DEL ALAMO, J. Colección diplomática de San Salvador de Oña (822-1284). Tomo I. Madril, 1950. (25. or.)
- ²⁷ CIERVIDE MARTIARENA, R. *Indice completo de antropónimos citados en el Becerro de Leire*, in *Fon-tes Linguae Vasconum*, 1978. (88. or.)
- ²⁸ LACARRA, J. M. Documentos para el estudio de la reconquista y repoblación del Valle del Ebro. (Números 1 a 319) Textos Medievales, 62. Zaragoza, 1982. (246. or.)
- ²⁹ XX. 1538-VI-19. Zestoako Udaleko Artxiboa. Saila: Relaciones del Ayuntamiento; Negoziatua: Rel. Autorid. Judiciales; Sorta: Causas Civiles y criminales. Liburu-zk.: 17; Espediente-zk.: 12. (1. or.)

³⁰ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de la villa de Lequeitio. Pleito sobre el monte Otoyó. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 42. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (1, 5, 23. or.).

³¹ USABIAGA FLORES, A. Andoingo toponimia. Onomasticon Vasconiae, 10. Euskaltzaindia. Bilbo, 1993.(353. or.).

³² DIAZ DE DURANA, J. Alava en la Baja Edad Media a través de sus textos. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 54. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1995. (78. or.).

³³ ESTEBAN DELGADO, M. El País Vasco atlántico en época romana. Historia, 6. Mundaiz. Donostia, 1990. (429-438. or.).

³⁴ CARO BAROJA, J. Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina. Estudios vascos XIX. Txertoa argit. Donostia, 1990. (66-76, 94, 95. or.).

³⁵ ESTEBAN, M. *El poblamiento de época romana en Gipuzkoa*, in Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko 1. Nazioarteko Solasaldia. Isturitz, 8. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1977. (68, 73. or.).

³⁶ CIERVIDE MARTIARENA, R. *Consideraciones en torno a la toponimia de Roncesvalles*, in Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo. Donostia, 1981. (279. or.).

³⁷ LIBANO ZUMALAKARREGI, A. Toponimia medieval del País Vasco. Onomasticon Vasconiae, 16. Euskaltzaindia. Bilbo, 1996. (272. or.).

³⁸ HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Libro de decretos y actas de Portugalete (1480-1516). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 15. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1988. (32, 33, 72, 75, 167. or.).

³⁹ HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Portugalete. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 12. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1987. (2, 222, 223. or.).

⁴⁰ LEKUONA, M. Begoña. *Notas etimológicas*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Donostia, 1954. (71-77. or.).

⁴¹ MUJIKA, L. M. Euskal toponimiazko materialeak. Bidania, Goiatz, Errezil, Zestoa, Aizarnazabal. XI. alea. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1989. (297-383. or.).

⁴² ARRAZOLA ETXEBERRIA, M. A. El Renacimiento en Guipúzcoa. Tomo I. Arquitectura. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1967. (254. or.).

⁴³ ARTAZUBIAGA, B. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 105; 2/001605 paper sorta. (47a folioa). (Oharra: folioen a = “aurkia” edo “recto” da).

⁴⁴ DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE, R. M. Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1565-1568). IV. alea. Gipuzkoako Batzar Nagusia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1990. (429. or.).

⁴⁵ XX. Expediente de amojonamiento. Azpeitiko Udaleko Artxiboa. Secretaría, Patrimonio. Bienes. Expedientes de amojonamientos. 785-16. (72, 76, 78, 222. or.).

⁴⁶ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. La colegiata de Santa María de Cenarruza 1353 - 1515. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 10. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1986. (88, 89, 100, 165, 171, 207, 213. or.).

⁴⁷ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta SARRIEGI ERRASTI, M. J. Colección documental de Santa María de Cenarruza. El pleito de Otaola (1507-1510). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 24. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989. (217. or.).

⁴⁸ MAGDALENO, R. Catálogo XX del Archivo General de Simancas. Títulos de Indias. Valladolid, 1954. (22, 167, 168. or.).

⁴⁹ MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (11370-1397). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1996. (158. or.).

⁵⁰ XX. 1514/01/01-1515/12/31. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Escribania Masas. Pleitos olvidados. C 262/3 – L 38).

⁵¹ XX. 1534-III-13. Debako Udaleko Artxiboa. Zenbakirik gabeko kutxa. XI. kartularioa, 6. agiria. (9. or.).

⁵² Biziki eskertu nahi dut Mikel Zalbide Elustondo euskaltzain jauna, onomastikaren arloan eman dizkidan argibide guztiengatik.

